

KRITIKA

ANTZERKIA

Josemari Carrere

Yllana konpainiaren *Spingo*.

Ez da erraza barrea eragitea

'Spingo'

Konpainia: Yllana. **Zuzendaritza:** Yllana.
Antzezleak: Antonio Perez Agudo, Ruben Martin, Eva Cruellas, Marisol Roza, Rolando San Martin, Rosa de Guindos. **Lekua:** Donostiako Antzoki Zaharra. **Data:** Urtarrilak 9.

Umoreak katarsi antzeko bat eragiten du gudan. Zuzentasunetik irtetzen laguntzen digu eta, era berean, bizi garen mundua beste era batean aztertzen. Herri kulturaren eguneroko estutasunetatik ihes egiteko erabili izan da umorea. Baita ere boterea kritikatzeko eta zurikeriaz betetako gizarte arauak kritikatzeko. Horregatik agian, botereak ondo asko saiatu zen barregura pertsona zuzenen ezaugarria ez izatea eta, beti ere, seriotasunaren beharra azpimarratu bizitzan zerbait nahi izatekotan.

Egun ere ez dira asko aldatu gauzak. Gogoratu bestela Dario Fok Nobel saria jaso zueneko. Bufoiaren izaera aldarrikatu zuen eta hori Nobel saria jasotzeko zuzena ez zela idazle «serio» bat baino gehiagok esan zuen. Izan ere barrearekin handiari, gizarte arauari, hipokrisiari, zurikeriari, botereari aurre egiteko gai gara, defentsa moduko bat da egunero jasotzen ditugun aginduen aurrean.

Yllana taldeak umorea du ardatz bere lanean. Egokia dena desegoki egiten du eta «hori ez

da egiten!» entzuten dutenean egin egiten dute. Kritikazaleak dira eta gizartearen dauden ezinbesteko arauak hankaz gora jartzen saiatzen dira. Horretarako, eskura dituzten baliabideetara joko dute: akrobazia, dantza, pantomima, txotxongiloak eta, batez ere, ondo pasatzeko gogo. Hauexek lirake *Spingo* ikuskariaren ezaugarri nagusiak. Esketxez osatutako ikuskaria non, transgresioa den ideia nagusia, taldean ohi bezala. Musika izango da eszenaren ardatza eta horien erritmoan eraiki dituzte esketxak. Musika ezagunak, dantzarako doinuak gehienak. Eguneroko gertaerak erakutsiko dizkigute euren galbahe erotik igaroz, ikuspuntu surrealista bilatu nahian.

Honaino ondo, ideia polita. Gertatzen dena da ez dutela asmatzen taularatzen. Txisteak zaharrak dira. Iragarritako akrobaziak ez dira beste munduko gauza eta dantza egiten badakitelera erakusten duten arren, ko-reografieta ez dute asmatzen, sinpleegiak dira. Uste dut ez dutela asmatu proposamenarekin. Ideia ona izanagatik, zakarrekiak gertatzen dira eszena asko, findu beharko litzuketela uste dut. Efektismotik aldendu eta ideietan sakondu beharko luke-tela uste dut. Bueno, nire ustea da. Beraiena barre egiteko proposamena, eta ikusleak barre egin zuen. Nahikoa al da?

LAGURREAN

ZINEMA

Yurek Bogayeviczen 'Jainkoaren ertzak' filmaren euskarazko bertsioa estreinatuko dute gaur

LUIS TORRES / EFE
Haley Joel Osment.

libratzeko, baina hala ere ez da arriskutik libre izango. *Edges of the Lord* du jatorrizko izenburua filmak, eta Haley Joel Osment (*The Sixth Sense*) da filmeko aktore nagusia.

ZINEMA

Espainiako zinemaren belaunaldiei buruzko zikloa Gasteizen

Las generaciones del cine español (Espainiako zinemaren belaunaldiak) zikloa egingo da Gasteizen hilaren 17tik otsailaren 1era bitartean. Hamabi film eskainiko dira Florida zine aretoetan, *Viaje a ninguna parte*, *Cómicos*, *La ley del deseo*, *El sur*, *Arrebato*, *Furtivos*, *Tía Tula*, *Diferente*, *Vacas*, *Epílogo*, *Mi querida señorita* eta *Solas*, besteak beste. Horrez gain, Juan Antonio Bardem, Gabino Diego, Julio Medem eta Fernando Guillenek filmen inguruan antolaturiko solasaldietan parte hartuko dute.

MUSIKA

Patrice Exazarreta bidartar gazteak du irabazi Euskal Herria Zuzenean-ek egin afixa lehiaketa

Aurten ekainaren 28, 29 eta 30ean iraganen den Euskal Herria Zuzenean jaialdia Patrice Exazarretaren afixak du jantziko. Erroak Bidarten dituen marrazkilari gazte honek jaialdiko arduradunek zabaldu afixa lehiaketa irabazi du hain zuzen. EHZ jaialdiaren publizitate kanpaina zabaltzean aurkeztua izanen da artelana. 20 bat artistak egindako lanen artean hautatu dute. Horiek guztiak jaialdi garaian ikusten ahalko dira Arrosako zelaian.

MUSIKA

Pablo Milanesek hainbat lagunekin egindako disko batekin ospatu du 40 urteko ibilbidea

Efe | MADRID

Hilaren 28an *Querido Pablo* disko bikoitza kaleratuko dute, Pablo Milanesen 40 urteko musika ibilbidea gogora ekartzen duen lana hain zuzen ere. Lan horretan Pablo Milanesen hainbat kantu ezagun agertuko dira, kantari kubatarrek berak hainbat kolaboratzaileekin grabatuak. Horrela, Joaquín Sabina, Mana taldea, Pancho Cespedes, Caetano Veloso, Fito Paez, Gal Costa, Ricardo Arjona, Juan Fornell y los Van Van, Ivan Lins, Armando Manzanero, Milton Nascimento, Charly García eta Alberto Cortezek hartu dute parte diskoan.

Haiekin batera abesteko bere kantu nabarmenenetako asko aukeratu ditu Pablo Milanesek: *Amame como soy*, *La novia que nunca tuve*, *Yolanda*, *La felicidad*, *Para vivir*, *El amor de mi vida*, *Sandra* edota *Los años mozos*, besteak beste. Kantuen hitzaurre gisa, Gabriel García Márquez idazleak hitz hauek grabatu ditu: «Disko hau mundu osoko lagunei, hizkuntza ezberdinetakoei irekitako etxe ibiltari gisakoa da; etxe honetan hizkuntza bakarra hitz egiten da, musikarena».

Lehen single gisa *Si ella me faltara alguna vez* kantua kalera-tu da. Milanesek bere emazteari eskainitako kantu hori kantariaren azken diskoan agertu zen, eta oraingoan Mana talde mexikarraren Fher abeslariarekin grabatu du.

2002. urtean Pablo Milanesen kantagintzaren 40. urtemugaz Nueva Trova Cubana mugimenduaren 35. urteurren ere ospatuko da. Milanesekin batera Silvio Rodríguez izan zen mundu osoan ezaguna egin zen mugimenduaren ordezkari nagusia.

IRAGARKI MERKEAK

943 300 222

33 x 33 mm

33 x 33 mm

70 x 33 mm
2 MODULO
(Edizio orokorra)

Egun: 38 €
Astea (6 egun): 30 €
2 aste (12 egun): 26 €
Hilabetea (24 egun): 18 €

33 x 33 mm
MODULO
(Iparraldea)

Eguna: 14 €
Astea (6 egun): 12 €
2 aste (12 egun): 10 €
Hilabetea: (24 egun): 8 €

33 x 33
MODULO
(Araba-Nafarroa)

Eguna: 14 €
Astea (6 egun): 12 €
2 aste (12 egun): 10 €
Hilabetea: (24 egun): 8 €

33 x 33 mm

33 x 33
MODULO
(Edizio orokorra)

Eguna: 19 €
Astea (6 egun): 15 €
2 aste (12 egun): 13 €
Hilabetea: (24 egun): 9 €

PUTZ

PUTZ 12 + "Metroko literak" Cd-a kalezuloan!

Adi! Azken Putz-ak literatura musikatua biltzen duen Cd-a dakar etal "Metroko literak". 15 idazleren lanak musikaz jantzita. 45 minutu ziutatearen errailetan. Testu guztiak aldizkarian datoz.

Putz 12:
• Eduardo Galeano. Mikel eta Aitor Gorosabel buruz buru. Elkarriketa luze eta mamitsua...

Egin harpidetza: 18€ pta. 6 aldizkari eta liburu bat doan!

PUTZ/168 P.K./ 20500 Arrasate (Gipuzkoa)
putz@euskalnet.net
Tel.: 94379 82 66 / 943 79 42 55

aldizkaria +CDa
4€